

BERTSOAK

KARMEL MENDIRANTZ
(1958-2008)

*Abuztuaren laua genuen
geure profesia eguna,
berrogeita hamar urte pasata
denok gogoan duguna.*

Guk bizitzaren egunsentian
hasi genuen bidaia;
Karmel mendira igotzea zen
gure amets eta nahia.

Zornotza eta Alesbeskoak
baditugu hainbat kontu,
baina profesia-eguna hartzen
dugu gaur abiapuntu.

Hortik aurrera jo genuen guk
norbaitek hartuz eskutik,
hark gorde gaitu harkaitz zuloan
erortzeko arriskutik.

Bidexka honek nora daraman,
hau da sortzen den galdera.
Barruko deia gidari dela
hel gaitzke goialdera.

Bidaia honek Karmel Mendingian
omen du bere helmuga,
hau da elkarrekin hasi genuen
erlijio-abentura.

Bizitza beti neketsua da,
ez dago bide errazik;
argi-ilunen artean ere
aurrera goaz poz-pezik.

Orain hamaika karmeldar gaude
Urrezko Ezteiak ospatzen;
beste lau ere hementxe dira
talde polita osatzen.

Halako baten iritsi ginen
geure Amaren mendira,
Stella Maris Santutegitik
maitez genuen begira.

Geure Amaren ondoan bilduz,
Karmel familiko festa;
elkar zorion dezagun hemen
bihotza pozez gainezka.

Luis Baraiazarra
Larrea, 2008-08-04

GURE PROFESAKO URREZKO EZTEIAK
(1958-2008)
(Jaunartze ondoren)

Zure aurrera dakargu, Jauna,
aspaldiko oroipena:
duela mende erdi bat hemen
promes egin genuena;
behin bideari ekin genion
eta gero jarraipena.
Zu izan zara tarte honetan
lagun, gidari onena,
gerora ere Zugan jarrita
daukagu itxaropena.

Geure esker ona erakusteko
hau da une aproposa,
hainbat urtean zure laguntzaz
asko dugulako goza;
arantza artean ederragoa
izaten baita larrosa,
gure bizitza zorionean
pixkaka daiteke osa,
horrela presta dadila, Jauna,
gure zahartzaroko poza.

Luis Baraiazarra
Larrea, 2008-08-04

PROFESAKO LAGUNAK
(1958-2008)

Gaurko eguna jarrita geunkan
guk egutegian gorritz,
gure historia txikian toki
apartekoan ezarriz.
Gure lagunen izenak eman
nahi ditut era egokiz,
eta zerrendan lehenengoa da
gure Jose Migel Ostiz.

Hitzezko jokoz nahi nuke beste
honen traza moldatzea:
lagun zintzoa, mendizalea,
ez da komeni aldatzea;
honen asmoa malawitarrak
Kristogana ekartzea.
lehenago horretan jarrai ezazu,
gure Victor Goikoetxea.

Markina aldean sortua baina
Larreako zutabea,
katekesian maisu handia,
Teresatxoren zalea;
parrokiako gidari ona,
baina karmeldar hobea...
Hori ta askoz gehiago dugu
gure Andoni Olea.

Neure buruaz kantatzeko ere
izan nahi nuke gaur garra,
holakoetan Teresatxori
eskatzen diot indarra;
hark piztutzen dit behar denean

inspirazio-izarra.
 Aspaldi baten medikuekin
 zer moduz, Baraiazarra?

Gaurko jaiaren antolaketak
 berari asko zor dio,
 ez du izan onik ospakizun hau
 bidean jarri artio.
 Musikarako joera horrek
 ez dio gutxi balio,
 han eta hemen musikarekin
 dabil Martin Arraztio.

Denen artean lagun batengan
 jarria nuen arreta;
 Meñakan eta karmeldarretan
 guk biok zenbat olgeta...!
 Legegizonak agertu ohi du
 bere zentzuzko oreka;
 horrela dabil denei laguntzen
 gure Jose Luis Ureta.

Oroipen haiek berriztatzeko
 Larrean elkartu gara,
 eta taldeko azkoitiarra
 ezin bazterrera laga;
 Poliklinikan gaixo artean
 edo Karmelo ta Praga,
 apostolutzan fin ari zaigu
 German Arrizabalaga.

Nire bihotzak korellar baten
 ondora narama berez;
 Erriberako zure hizkuntzan
 ezin dut kanta, tamalez;

Afrika aldetik etorri eta
zeure herrian zaude pozez;
urte askoan jarrai ezazu
horrelaxe, Victor Perez.

Peru utzita ahalegin handiz
airez etorri da honantz,
ongi etorri gure artera!
esan diogu algaraz;
beraren falta hutsune handia
gertatuko zen bestenaz;
pozten gara bai zu ikustez
hemen, Kalixto Goldaraz.

Erljiozko bidaia honek
badu hainbeste aurpegi:
Santanderren zen gogotsu hasi
Panaman lanean segi;
arlo zabala Ameriketan
zitzaien aurrez ageri.
Orain Gasteizen zintzo ari da
Martin Mari Ariztegi.

Zerrenda amaitzen ari denean,
ultzamar bat aurrez aurre,
urrundik dator karmeldar ona,
inor ez da ez haserre;
itsasoz handik datozen bie
bihotzeko gorazarre;
ongi etorri gure artera,
Txiletik, Martin Agirre!

Bertso batean sartuko ditut
gainerakoak lehenbailehen,
lau hauek ere merezi dute

bertsozko zenbait aipamen;
gu bezalaxe profesak berak
hauek markatu zituen.
Zorionak, ba, Jose eta Luis,
Antonio eta Julen.

Hasi ezkerrekin bukatu behar,
eta azkena, joan zenaz.
Nahiko gazterik joan zinen, bai,
senitartekoen penaz;
gure gomuta zugana doa
barruan leku eginaz,
Karmengo Amari otoizka gaude
gaur, Jose Ramon Arribas.

Luis Baraiazarra
Larrea, 2008-08-04

TXANTON GOIRIAREN BERTSOAK:

Enbeita

Euzko-Gogoa (1956, iraila/urrila) 8

Muxikan yayo, Muxikan asi,
Muxikan bizi lanagaz;
Muxikan jarri bere kabia
umetalde joriagaz;
Muxikan sortu gaztetarikan
bere lenengo bertsoak,
Muxikan lenen ezautu-maita
Euzkadi bere gogoak.

Kepa Enbeita, Muxikakoa,
bertsotan urretxindorra,
Imanol bere anaia legez
euskaldun zintzo-jatorra;
jaungoiko-zale benetakoa,
Euzkadiren kantaria,
zure oroia euskaldunentzat
ikurkun eder-bizia.

Bertso-egadan ibilli-ziñan
Aberri-zear lanean,
jel-asi ona erein-zabaltzen
euzkoen biotz barnean;
Zure bertsoak, bertso guriak,
suzko beroa, txinpartak,
ainbat euskaldun esnatu zitun
Euzkadirentzat Enbeitak.

Soñez ilda be zure gogoa
bizi da euskal-errian,
zure oroia ez da atzinduko

egundo gure artian;
 Otoi, arren, zuk, Enbeita ona,
 guztion alde zerutik,
 auxe daskatzut danen izenez
 gaur neure biotz-barrutik.

Kepa Enbeita.
Bere 100 urtebetetzean

Karmel (1978, 4) 77-78

(Bere seme-alaba Enbeita-Goiriari biotzez).

Kepa Enbeita Urretxindorra,
 Euzkadiko Arranoa;
 illezkor zara... ez zara zu il,
 bizi da zure gogoa;
 zure bertsotan ezarri zeuntsan
 Euzkera Amari beroa;
 izkuntza jori, bizia zendun,
 joskera garbi-oso.

Urretxindorren antzera zoli,
 ibilli ziñan kantari;
 euzko gogoa esnatutzeko
 arduratsu ta ameslari;
 ainbat tokitan zabal zenduan
 JEL-azi ona ugari,
 orregatikan agertzen zara
 euskal soloan gidari.

Euzkadi eta Euskararekin
 maite-minduta osoan,
 sutsu-gogotsu ekin zenduan,
 gau ta egunez arloan;

Arrano-antzo ibilli ziñan
egada samur-gozoan,
erririk-erri bertso-kantari
euzko anaien ondoan.

Fede aundiko gizona ziñan,
Jaungoikoaren maitale,
oitura onen serbitzari ta
giza'eskubide jagole;
txiro-makalen aizkide zintzo
ta zapalduen aldezle,
guztientzako agertu ziñan
maitekor eta ongille.

Etsai asko ta aundiak doguz
guk euskaldunok kanpuan,
eta txarrenik txarrena dana
etsaiak etxe-barruan;
zuk lez Enbeita ekingo dogu,
leial-gogotsu guduan,
Euzkadi eta Euskera alde,
gogor burruka sutsuan.

Agur biotzez Urretxindorra
gora ta gora Enbeita,
euskal arloan bertsolaritzan
zu zara gidari ta aita;
zu lez gu danok Euzkadirekin
gaude-ta maite-minduta,
danok adorez esan dagigun:
GORA EUZKADI ASKATUTA.